

2021eko AZAROAREN 10eko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-11-10.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: berezia, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Estibaliz Pinacho Olaciregui

Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

Germán Castillo Lazcanotegui

José Antonio Oyarzabal Iribas

Raquel Quiroga Tapia

Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ATXIKI GABEKO ZINEGOTZIA

Josu Iratzoki Agirre

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Aitor Elexpuru Egaña (alkatea).

Julen Errandonea Martin

BILKURAKO BURU (alkatearen ez egoteagatik)

José Esteban Aguirre Zubieta

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

KONTU-HARTZAILEA: María Dolores Oyarzabal Zubieta

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Presidenteak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/10/20). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

Estibaliz Pinacho bilerara sartu egin da.

2. 2022KO AURREKONTU OROKORRA. HASIERAKO ONESPENA.

Kontu-hartzaileak aurrekontuaren laburpena azaldu du, gastuen zein diru-sarreraren adierazpena eginez.

Ondoren, honako azalpen hau egin du J. Esteban Aguirrek (aktan jartzeko alkateak idatzita eman duen agiria irakurriz):

“2022 urterako aurrekontuak onartu ditu Berako udalak. Guztira 4.284.356,29 eurokoa izanen da. Iaz baino 696.490,75 euro gehiago. Aurtengoan ezin izan ditugu kontuak berdindu mailegurik aurreikusi gabe. 44.304,56 euroko mailegu bat hartzea aurreikusi da. Aurten bezala ere, beharrik ez badago ez da erabiliko. Nolanahi ere udalaren zorra gutxitzen segituko da 2022an, maileguen amortizaziorako 82.994,21 euro jarri direlako.

COVID19aren pandemia dela eta nahiz eta fiskalitate erregelak bertan behera geldituak egon, aurrekontuak egiterakoan estabilitatearen legea kontuan izan behar dugu (aurrekontuaren estabilitatea eta zor publikoaren helburua) nahiz eta ez betetzeak ondorioz ez dakarren 2021ean gerakina erabiltzeko aukera izan dugu hainbat inbertsioetarako. Heldu den urtean ere aukera hori aurreikusten da, eta denboragatik aurten ezin izan ditugunak burutu, 2022an burutzeko asmoa dugu. Pandemiaren egoera hobetzen joanen dela uste dugu, baina oraindik ziurgabetasunean bizi gara. Pandemiak okerrera egingen balu, osasunak izanen du lehentasuna, eta horretara bideratu beharko dugu dirua ere noski.

Langilegoari dagokionez Musika Eskolako langileen lan balditzetan hobekuntza bat egon da. Hiru irakasle obra kontratuakin egotetik interino izatera pasa dira. Musika eskolako idazkariari ere C mailako soldata berdintzen duen osagarria jarri zaio. Aurrekontu hauek txosten horretan azaltzen diren ordain sarien eguneratzea jasotzen dute.

Berdintasun teknikaria ere kontratatuko da bortziri mailan 27.414,41 euro jarri beharko du Berako udalak, baina 18.124,80 jasoko ditu diru laguntza kontzeptuan.

Bertze albiente bat hartzeko deialdia martxan dago, 6 hilabeteko soldata sartu da aurrekontuetan.

Tasei dagokionez aipatu behar dugu, %2a igoko direla. Ez da igoera erranguratsua, ikusita gaur KPIa horren bikoitza baino gehiago dela, eta heldu den urtean ere antzera jarraituko duela.

Toki-erakundeen finantziario sistema berria adostu du Nafar Gobernuak parlamentuko gehingoarekin. Nafarroako Gobernuko Toki-Ogasun Funtza, hau da udalei banatzen zaien fondoa, diru sarrera garrantzitsua da. Aurten %23ko igoera adierazgarria izanen du. Funtzaren banaketa justuago bat ahalbidetzen da eta Udal finantziarioa hobetuko du honek. Aurten 1.200.000 euro espero ditugu.

Inbertsioei aurre egiteko nahitaezkoak ditugu dirulaguntzak. Tokiko Inbertsioen Plan berria adostu du ere Nafar Gobernuak. 30 milioi euro izanen dira urtero Nafarroan, toki-erakundeei egonkortasuna emateko helburu nagusiarekin, beren inbertsioak beharren arabera planifikatzeko.

Diru hau ur hornidura eta zoladura hobetzeko erabili nahiko genuke, atal honetan herriak behar handiak dituelako.

Euskaldunan hasi eta Ilekuetarainoko ur sarea berritu nahiko genuke 2022an. 174.000 euroko diru sarrera espero dugu. Fibrozementozko hoditeria aldatu nahi da 290.000 euroko gasuta du. TIP eta determinazio askeko dirulaguntza erabiliko dugu honetarako. TIP-ean sartu ahal diren bertze lanen proiektuak ere prestatzen joanen gara.

Ibardingo argiztapena eta euri uren sarea berritzeko 200.000 + 160.000 euroko dirusarrerak espero ditugu. Lan hauek Nafar Gobernuaren diru lagutzak izanen dituzte eta gasolindegiko kanona ere erabiliko da finantziazeko. Udala bitartekari da. Ibardingo merkataria elkartearen kontura joanen dira gastuak. 280.290,43 euro ur sareak eta 119.709,57 euro argiteria.

Beraz Inbertsiotarako 1.103.532,54 euro bideratu dira. Iaz baino 633.606,21 euro gehiago. Bertan udal eraikinen mantentzea (ikastetxeak eta kirol instalazioak), espaloiak moldatzea, baserri bideak moldatzea, mugikortasunaren aldeko neurriak, mendi garbiketak eta abar luze bat sartzen ditugu.

Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako aurrekontu akordioan Porttu interpretazio zentroaren proiektuarekin jarraitzeko 64.000 euro aurreikusten dira.

Diru laguntzen atalean PDRrako ere proiektu bat finantziazeko eskaera egin dugu. Udaleko fatxadako irudiak berritzea. Vianako Printzeak egin du txostena, eta diru laguntza badago eginen da, eta bertzela aurreragorako utzi beharko da. 50.000 euro espero ditugu.

IDAera ere eskatu da dirulaguntza DUS5000 programaren arira, kiroldegiko teilatuan autokontsumorako plaka fotoboltaikoak paratzeko. 40.000 euroko kostua luke proiektu honek, eta IDAetik %85eko finantziazioa lortzea espero dugu.

Musika eskolaren kasuan Nafar Gobernuaren aldetik finantziazioa hagitik eskasa da. Hasiara batean %33ko dirulaguntza aurreikusten zen baina gaur egun %14,96 ingurukoa da Iruñeatik iristen dena. Udalak ahalegin handia egiten du musika eskolaren bideragarritasun ekonomikoan.

Mendi garbiketa eta nekazal azpiegituren moldaketetarako 70.000 euro espero ditugu.

Otsaileko sute handiaren ondorioz izan ziren kalteak finantziazeko 250.000 euroko funtsa du prest Nafar Gobernuak. Hortik zati bat Berara iritsiko da nekazal azpiegitura eta zuhaitzi partikularretan egindako kalteak eta galdu diren abereak ordaintzeko.

Funtzionamendu gastuak: iazko partida gehientsuak mantendu dira eta egon den ejekuzioa kontutan hartuta batzuk haunditu dira eta bertze batzuk ttikitu. 2022an kirol instalazioak Udala sortzen ari den enpresa bitartez kudeatu behar dira, horren ondorioz kapitulu honetan sartzen ziren gastuak 4. kapitulura pasako dira

Kulturak, bestak, euskarak... azken urteetako joerari jarraituz, beraien partidak mantendu dira

Aurten auzorik auzo bilerak egin ditugu ere herritarren eskaerak bilduz. Bildutakoa gauzatzen saiatuko gara, horretarako inbertsioetarako dirua erabili beharko da mometu batzuetan.

Horrela ba 2021. urtea ere bete bete datorrela erran dezakegu. Udala ekonomikoki sobera behartu gabe saiatuko gara ahalik eta hobekien gure aurreikuspen hauek antzinera ateratzen, zentzuzko kudeaketa ekonomiko bat garatuz. Udalaren zorra jaisten segiko dugu,

baina diru-sarrerei muzin egin gabe.

Azkenik, aurrekontu proiektu hau proposamen bat besterik ez dela azpimarratu nahiko genuke. Urtea nola joaki den aldaketak egon ahal dira diru kontuen antolakuntzan. Aldaketa eta ezusteko hauek Udalbatza osatzen dugun guztien artean adostasunetara iritsiz burutu nahiko genituzke”.

Jarraian, idazkariak azaldu du aurrekontuaren espedienteak jarraitzen duen prozedura.

Ondoren, erabaki hau hartu da **aho batez**:

Ikusirik 2022. ekitaldiko aurrekontu orokorraren proiektua, non Udal aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.

Kontu-hartzailearen ahozko txostena eta idazkariaren txosten juridikoa aztertuta, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikuluetan ezarritakoaren arabera, honako hau

ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea 2022. ekitaldiko aurrekontu orokorrari.

2. Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-oholean iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak egin ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, aurrekontua behin betiko onetsizat hartuko dela.

Kontu-hartzailea bileratik atera egin da.

3. UDAL LANGILEEN ETA MUSIKA ESKOLAREN PLANTILLA ORGANIKOA 2022RAKO. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik 2022. urteko plantilla organikoaren espedientea, Udaleko eta Musika Eskolako langileek barnean hartzen dituen.

Kontuan izanik idazkariaren txosten juridikoa eta aplikagarria den araubide hau: Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 235. artikulua; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201. eta 202. artikulua; 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua) 19. eta 20. artikulua; Euskarari buruzko 18/1986 Foru legearen 15.2 artikulua; 103/2017 Foru Dekretuaren 22. eta 28. artikulua (euskararen erabilera arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan),

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespena ematea Udaleko eta Musika Eskolako langileen 2022rako plantilla organikoari, espedientean jasotako edukiarekin. Euskara jakitea nahitaezkoa izanen

da organismo autonomo eta Udaleko edozein lanpostu eskuratzeko, funtzionarioenak zein kontratatuenak, finkoak edo aldi batekoak; lanpostu guztiei esleituko zaie Bortzirietako Euskara Mankomunitateak plantilla organikoetako lanpostuen hizkuntza eskakizunei buruz egindako txostena aplikatzearen ondoriozko euskara maila.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, plantilla behin betiko onetsizat hartuko dela eta haren laburpena argitaratuko dela.

4. UDAL-ZERGEN ZERGA-TASAK 2022KO EKITALDIRAKO.

Kontu-hartzaileak aipatu du tartea dagoela legearen barruan %2 igotzeko udal zerga batzuen tasa.

Gero, espedienteak jarraitu beharreko prozedurari buruzko aipamena egin du idazkariak.

Jarraian, ondoko erabaki hau hartu da:

Kontu-hartzaileak eta idazkaritzak egindako txostenak ikusirik, eta kontuan izanik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikulua araberan, udal zergen zerga-tasen aldaketak onetsi behar direla ondorioak izango dituzten urtea hasi baino lehen,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Zerga-tasa hauek onestea 2022rako:

- Lurraldeko kontribuzioa, %0,248.
- Izaera urbanoko terreneen balio gehikuntzaren gaineko zerga, %18,58. Gehikuntza errearen zenbatekoa finkatzeko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluan agertzen diren gehieneko koefizienteak aplikatuko dira.
- Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, %5ean mantendu.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 1,3755 indizea aplikatu.

2. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan.

5. TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK 2022KO EKITALDIRAKO. HASIERAKO ONESPENA.

Tasak eta prezio publikoak %2 batean igotzea proposatu da.

Idazkariak espedienteak jarraitu beharreko prozedurari buruzko aipamena egin du eta ohartarazi du Musika Eskolako tarifen sistema ez datorrela bat Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 189. artikuluan eta Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduko —1955eko ekainaren 17ko Dekretua— 150. artikuluan xedatutakoarekin.

Jarraian, ondoko erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Tasa eta prezio publikoen tarifak 2022rako aldatzeko espedientea.

- Kontu-hartzaileak eta idazkaritzak emandako txostenak.

- Gai baten alderdi partzialen arauketa izanik, egin gabe utz daitekeela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 133.1 artikulua arautzen duen aurretiko kontsulta publikoa.

Kontuan izanik Nafarroako Toki Administrazio 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikulua xedatzen dutena,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasiera batean onestea honako prezio publiko eta tasen tarifen aldaketa 2022. ekitaldirako, espedientean ageri den edukiarekin (%2ko igoera):

- Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzorua aprobetxamendu bereziengatiko tasak.

- Agiriak tramitatu eta luzatzeengatiko tasak.

- Udal kirol instalazioak erabiltzeengatiko tasak.

- Jarduera zein irekitze baimenengatiko tasak.

- Animalia arriskutsuak eta bestelakoak edukitzeengatiko tasak.

- Musika Eskolako tasak.

- Saneamendu eta ur-horniduraren inguruko tasak.

2. Erabaki hau jendaurrean jartzea 30 eguneko epealdian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki-taulan iragarri ostean, herritarrek eta bidezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkeztu ditzaten.

3. Ohartaraztea hasierako onespenean hau behin betikoan bilakatuko dela, baldin eta erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da gertaera hori, behin betiko testuarekin batera, eta argitaratze datan hartuko du indarra.

4. Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalen Erregistrora bidaltzea aldaketa hauek, behin betiko onespenean gauzatu ondoren.

6. GORA JOTZEKO 21-01846 ERREKURTSOA, 2021/02/17KO OSOKO BILKURAREN ERABAKIAREN AURKAKOA (HJPB-AREN BEHIN BETIKO ONESPENA).

Ikusirik:

- Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariaren probidentzia, 2021eko urriaren 13koa, zeinaren bidez Udalarik jakinarazten baitzaio 21-01846 zenbakiko gora jotzeko errekurtsua, XXX jaunak jarria Udaltzaren 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren

aurka. Erabaki horren bidez, behin betiko onartu zen Bostargi, S.L. enpresak Ibardinen sustatutako hiri-jarduerarako plan berezia.

- XXX abokatuak 2021eko azaroaren 8an egindako txostena.

6/1990 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduko (279/1990 Foru Dekretua) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Aipaturiko txosten idatzia onestea.

2. Adieraztea dagoeneko egin direla nahitaezko epatzeak.

3. Nafarroako Administrazio Auzitegiari bidaltzea onetsitako txostena, administrazio espedientearen kopiarekin batera, epatzeko egindako jakinarazpenak erantsita.

7. NAFARROAKO 2014-2020 LGP LAGUNTZAK.

Ikusirik “BERAKO UDALETXEAREN FATXADA POLIKROMATUA KONTSERBATZEKO LANAK” izeneko proiektua egiteko laguntza eskatzeko asmoa dagoela, 2014-2020 Nafarroako Mendialdea LGP programako toki-garapenerako proiektuen 2021eko lehen deialdiaren babesean (Cederna-Garalur elkarte),

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako 2014-2020 LGPko partaidetzazko toki-garapenerako estrategiak ezartzeko laguntza eskatzea.

2. Laguntza izapidetzeko ordezkaria izendatzea: alkatea edo legez haren ordezkaria dena.

Beste aztergairik izan gabe, 20:30ak direnean, presidenteak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. PRESIDENTEA,
J.Esteban Aguirre Zubietta.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.